

Bizkaiko Foru Aldundiaren 99/2007 FORU DEKRETUA, ekainaren 19koa, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa arautzen duena.

DECRETO FORAL 99/2007, de 19 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula la prestación económica de asistencia personal.

ARRAZOIEN ADIERAZPENA

Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta horientzako laguntza arautzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta pertsona horiei laguntza emateko oinarritzko baldintzak arautu ditu. Horretarako, Mendekotasun Egoeran daudenentzako Autonomia eta Laguntza Sustatzeko Sistema (MEALS) bat sortu da, herri administrazio guztien lankidetzeta eta partaidetzarekin batera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legeak ezartzen du gizarte zerbitzuen sistema botere publikoen ardura dela eta ardura horrek herritarrek zerbitzu horiek jasotzeko duten eskubidea bermatzen duela.

Horregatik, foru dekretu hau egin da Bizkaiko Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran daudenei laguntza emateko sistemaren arloan laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa arautzeko beharrezkoa betetzeko. Honen helburua mendekotasun handia aitortu zaien pertsonak pertsona bezala dituzten nahiekin bat datorren jarduera garatu ahal izatea eta gizarte egoera hobea lortzeko aukera, eta, ondorioz, gizarteratze maila altuagoa eta garapen pertsonalerako aukera gehiago izatea ahalbidetuko dien lanbide eta/edo ikasketa arloko jarduera garatu ahal izatea da.

Azaldutakoa dela bide, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17. eta 64.3. artikuluen arabera, Gizarte Ekintzako foru diputatuak proposaturik, eta aurretiaz Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2007ko ekainaren 19ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DA:

1. artikulua.—*Xedea*

Foru dekretu honen xedea Bizkaiko Lurralde Historikoan laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa arautzea da. Prestazio hori Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta horientzako laguntza arautzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legean dago jasota.

2. artikulua.—*Definizioa*

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa mendekotasun handia duten pertsonen hezkuntza eta/edo lan munduan sartzea ahalbidetuko dien eta eguneroko oinarritzko ekintzak egitekoan autonomia gehiago izateko aukera emango dien laguntzaile pertsonala kontratatzeak eragindako gastuak ordaintzen laguntzeko da.

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa aldizkakoa izango da eta mendekotasun graduaren eta mailaren arabera onartuko da.

Laguntza emateaz arduratuko den pertsonak, laguntzaile pertsonalak, zerbitzu horiek ematen dituen enpresa baten bidez kontratua eginda edo, zuzenean, lan-kontratua edo zerbitzuak emateko kontratua eginda emango ditu bere zerbitzuak. Kontratu horretan onuradunak zerbitzua emateko proposatutako baldintzak eta jarraibideak sartuko dira, eta, hala erabakitzen bada, ezartzen den isilpeketasun-klausula ere.

3. artikulua.—*Bateraezintasunak*

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa ezin izango da jaso Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta horientzako laguntza arautzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legean jasotako prestazioekin eta zerbitzuekin batera.

Hala ere, prestazio hau bateragarria izango da telelaguntza zerbitzuekin, aldi baterako egonaldian jasotako egoitza-arretarako zerbitzuekin eta araz ezartzen diren beste batzuekin ere.

EXPOSICION DE MOTIVOS

La Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, ha venido a regular las condiciones básicas de promoción de la autonomía personal y de atención a las personas en situación de dependencia mediante la creación de un Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia (SAAD), con la colaboración y participación de todas las Administraciones Públicas.

La Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, establece que el sistema de servicios sociales es responsabilidad de los poderes públicos, responsabilidad que constituye la garantía del derecho de la ciudadanía a dichos servicios.

Por ello, el presente Decreto Foral responde a la necesidad de regular la prestación económica de asistencia personal del sistema de atención a la dependencia en el Territorio Histórico de Bizkaia. Su objetivo es que personas valoradas como grandes dependientes puedan desarrollar una actividad acorde con sus aspiraciones como persona y puedan desarrollar una actividad laboral y/o académica que les permitirá una situación social mejor y por ende un nivel mayor de integración y de posibilidades de desarrollo personal.

En su virtud, y de acuerdo con los artículos 17 y 64.3 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, a propuesta del diputado foral de Acción Social y previa reunión y deliberación del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia en su reunión de fecha 19 de junio de 2007,

SE DISPONE:

Artículo 1.—*Objeto*

El presente Decreto Foral tiene por objeto la regulación de la prestación económica de asistencia personal prevista en la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Artículo 2.—*Definición*

La prestación económica de asistencia personal está destinada a contribuir a la cobertura de los gastos derivados de la contratación de un/una asistente personal, que facilite el acceso a la educación y/o al trabajo, y posibilite una mayor autonomía en el ejercicio de las actividades básicas de la vida diaria a las personas con gran dependencia.

La prestación económica de asistencia personal, tendrá carácter periódico y se reconocerá en función del grado y nivel de dependencia.

La persona encargada de la asistencia, asistente personal, prestará sus servicios mediante contrato con empresa prestadora de estos servicios o directamente mediante contrato laboral o de prestación de servicios, en el que se incluirán las condiciones y directrices para la prestación del servicio propuestas por la persona beneficiaria y, en su caso, la cláusula de confidencialidad que se establezca.

Artículo 3.—*Incompatibilidades*

La prestación económica de asistencia personal será incompatible con las prestaciones y servicios previstos en la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia.

No obstante lo anterior, la presente prestación será compatible con el servicio de teleasistencia, con el servicio de atención residencial en estancias temporales y con otros en las que así se determine reglamentariamente.

4. artikulua.—Herri administrazioen arteko lankidetzak

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak arlo honetan dituen eskumenak era koordinatuan gauzatuko ditu gizarte zerbitzuen alorrean eskudunak diren gainerako Herri Administrazioekin eta beraiekin lankidetzan jardungo du.

5. artikulua.—Onuradunak

1. Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa eskuratzeko baldintzak honako hauek dira:

a) Mendekotasun handia aitortua izateaz gain, eskatzen dituen zerbitzuak zehazteko, horiek kontrolatzeko eta horiek egiteko laguntzaile pertsonalari jarraibideak emateko gai izatea.

b) Laguntzeko banakako programak prestazio hau egokia dela zehaztuta izatea.

b) Onuradunak hezkuntza eta/edo lan munduaren arloan jarduerak egitea.

d) Legalki bizitza estatuko lurraldean eta bost urtetan zehar horrela gertatu izatea, urte horietako bi eskabidea aurkezten den dataren aurre-aurreko urteak izan beharko direlarik.

Baldintza hau egiaztatuz joko da pertsona eskatzaileak bere egoitza estatu barruan izan eta bertan bizi denean, bai eta egoiliarra denean.

e) Berriro hona itzuli diren emigratzaileek laguntza prestazioak eskuratzeko aukera izango dute, Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta horientzako laguntza arautzeko Legeko 5.1.c) artikuluan eskatutako baldintza, estatuko lurraldean egoitza izateko aldiei dagokiena, bete ez arren.

f) Prestazioa onartzeko eskabidea aurkezten den unean Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta egotea.

2. Aurreko baldintzak bete arren herritartasun espainiarra ez duten pertsonen honako arau hauek jarraitu beharko dituzte: Espainiako atzeritarren eskubide eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, nazioarteko hitzarmenak eta pertsona horien jatorriko herrialdearekin egiten diren hitzarmenak. Herritartasun espainiarra ez duten adingabeei dagokienez, estatuan nahiz erkidegoetan edota nazioarteko hitzarmenetan indarrean diren adingabeei buruzko legeetan ezarritakoari jarraituko zaio.

6. artikulua.—Laguntzaile pertsonalaren betekizunak

Laguntzaile pertsonalak, dekretu honetan ezarritako xedearekin onuradunari zerbitzuak ematen dizkion langilea den heinean, honako betekizun hauek bete beharko ditu:

a) 18 urte baino gehiago izan behar ditu.

b) Estatu espainiarrean legalki bizi behar da.

c) Gizarte Segurantzaren arloan zaintzaile profesionalentzat ezarritako betebeharrak bete behar ditu.

d) Laguntza pertsonalak eragindako zerbitzuak emateko pertsona egokia izatea.

e) Ezin da izan onuradunaren ezkontidea eta /edo ahaidea (odolekoa, ezkontzako edo adopzio bidezkoa, hirugarren ahaide-tasun-mailaraino).

7. artikulua.—Prozeduraren instrukzioa eta ebazpena

1. Pertsona interesatuak mendekotasun handia aitortua badu eta berari dagokion Laguntzeko Banakako Programan prestazio hau jasota badago, eskabidea aurkez dezake Gizarte Ekintza Sailean, I. eranskinean ageri den eredu normalizatuaren arabera. Honako agiri hauek ere aurkeztu beharko ditu:

a) Zaintzaile pertsonalarekin sinatutako kontratua eta Gizarte Segurantzaren arloan zaintzaile profesionalentzat ezarritako betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duen ziurtagiria.

b) Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Foru Sailari emandako baimena, fitxategi informatizatueta jasota dauden datu pertsonalak, ekonomikoak, osasun arlokoak eta sozialak estatistikak egiteko eta zientzia-ikerketarako eta Gizarte Ekintza Sailean diren funtzioetan erabil dituzan, datu pertsonalak babesteko legerian aurrez ikusitako eran.

Artículo 4.—Colaboración entre Administraciones Públicas

El Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia ejercerá sus competencias en esta materia de forma coordinada con las demás Administraciones Públicas competentes en materia de servicios sociales y cooperando con las mismas.

Artículo 5.—Personas beneficiarias

1. Las condiciones para acceder a la prestación económica de asistencia personal son:

a) Además de haber sido valorado en el grado de gran dependencia, tener capacidad para determinar los servicios que requiere, ejercer su control e impartir personalmente instrucciones al asistente personal de cómo llevarlos a cabo.

b) Que el Programa individual de Atención determine la adecuación de esta prestación.

c) Que la persona beneficiaria esté desarrollando actividades dentro del ámbito educativo y/o laboral.

d) Residir legalmente en territorio estatal y haberlo hecho durante cinco años, de los cuales dos deberán ser inmediatamente anteriores a la fecha de presentación de la solicitud.

Este requisito quedará acreditado siempre que la persona solicitante tenga su domicilio en territorio estatal y resida en el mismo, así como que ostente la condición de residente.

e) Los emigrantes retornados podrán acceder a las prestaciones de naturaleza asistencial, aun cuando no cumplan el requisito de los periodos de residencia en territorio estatal exigido en el artículo 5.1 c) de la Ley de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las Personas en Situación de Dependencia.

f) Estar empadronada en el Territorio Histórico de Bizkaia en el momento de presentar la solicitud de reconocimiento de la prestación.

2. Las personas que, reuniendo los requisitos anteriores, carezcan de la nacionalidad española se registrarán por lo establecido en la Ley Orgánica 4/2000, de 11 de enero, sobre derechos y libertades de los extranjeros en España y su integración social, en los tratados internacionales y en los convenios que se establezcan con el país de origen. Para los menores que carezcan de la nacionalidad española se estará a lo dispuesto en las Leyes del Menor vigentes, tanto en el ámbito estatal como en el autonómico, así como en los tratados internacionales.

Artículo 6.—Requisitos del asistente personal

El/la asistente personal, como trabajador/a que presta servicios a la persona beneficiaria con la finalidad establecida en el presente Decreto, deberá reunir los siguientes requisitos:

a) Ser mayor de 18 años.

b) Residir legalmente en el Estado español.

c) Cumplir con las obligaciones establecidas en materia de Seguridad Social para los/las cuidadores/as profesionales.

d) Ser persona idónea para prestar los servicios derivados de la asistencia personal.

e) No ser cónyuge y/o pariente por consanguinidad, afinidad o adopción, hasta el tercer grado de parentesco de la persona beneficiaria.

Artículo 7.—Instrucción y resolución del procedimiento

1. Si la persona interesada ha sido valorada como gran dependiente y en su Programa Individual de Atención se determina esta prestación, podrá presentar su solicitud, conforme al modelo normalizado recogido en el Anexo I, ante el Departamento de Acción Social junto con la siguiente documentación:

a) Contrato suscrito con el cuidador personal y certificado de cumplir con las obligaciones establecidas en materia de Seguridad Social para los cuidadores profesionales.

b) Autorización al Departamento de Acción Social de la Diputación de Bizkaia para que los datos de carácter personal, económicos, sanitarios y sociales que integren los ficheros informatizados, puedan ser utilizados con fines de producción de estadísticas e investigación científica y para las funciones propias del Departamento de Acción Social, en los términos previstos por la legislación de protección de datos de carácter personal.

c) Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari emaniko baimena, beste herri administrazioen, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren datu-baseak kontsulta ditzan, egiaztatu ahal izateko ea onuradunak izaera eta xede bereko beste prestazioen bat daukan, gizarte-babesaren arloko bestelako araubideren batean.

Horrez gainera, eskabideak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38. artikuluan ezarritako bideetarikoa bat erabiliz ere bideratu ahal izango dira.

2. Baldin eta agiriak ondo bete gabe aurkezten badira, edo aurreko artikuluan adierazitako agirietako bat falta bada, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, Sail honetako administrazio-unitate eskudunak edozein unetan eskatu ahalko dio interesdunari hamar (10) eguneko epean akatsak zuzendu ditzala eta nahitaez aurkeztu beharreko agiriak aurkez ditzala. Era berean, jakinaraziko dio hori betetzen ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, eta horretarako, aldez aurretik ebazpena emango dutela 30/1992 Lege horren 42. artikuluan aurrez ikusitako moduan.

3. Arauzko espedientearen instrukzioa eginda eta, hala badagokio, Gizarte Ekintza Saileko administrazio-unitate eskuduneko talde teknikoak aztertu, iritzia azaldu eta proposamena egin ondoren, Gizarte Ekintzako foru diputatuak foru agindua emango du, eskatutako prestazioa emateko edo ukatzeko eta jakinarazpena egingo da, 30/1992 Legean ezarritakoaren arabera.

Ebazteko gehieneko epea 2 hilabetekoa izango da, eskabidea aurkezten denetik zenbatuta. Gehieneko epe hori ebazpenik jakinarazi gabe igaroz gero, interesdunek ulertu ahalko dute Administrazioak ez diela erantzun eta prestazioa emateko eskabideari ezezkoa eman diola.

4. Eskatzaileak ez baditu betetzen prestazioaren onuradun izateko ezarritako baldintzak, aginduzkoa den entzunaldiaren izapidearen berri emango zaio eskatzaileari edo, bestela, bere legezko ordezkariari edo egitatezko zaintza duen pertsonari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 84. artikuluan xedatutakoaren arabera.

5. Prozedura hau ebazten duen foru aginduak administrazio bidea agortuko du; haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean arautzen da) aurkeztu ahal izango zaio Gizarte Ekintzako foru diputatuari, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete (1) pasatu baino lehen.

6. Prozedura hau ebazten duen foru aginduaren aurka, zuzenean, edo haren aurka aurkeztutako berraztertze errekurtsoa ebazten duen foru aginduaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, eta horretarako bi (2) hileko epea egongo da prozedura ebatzi duen foru agindua edo horren aurka aurkeztutako berraztertze errekurtsoa ebatzi duen foru agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen zetailearen 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorritik.

8. artikulua.—Prestazioaren zenbatekoa zehaztea

Mendekotasun handia aitortua duten pertsonentzako prestazioaren zenbatekoa, 2007rako, honako hau izango da:

- III. gradua, 2. maila 780 euro / hilean.
- III. gradua, 1. maila 585 euro / hilean.

9. artikulua.—Kenkariak

Onuradunak gizarte-babesaren arloko beste araubide publikoren batean ezarritako izaera eta xede bereko edozein prestazio jasotzen badu, aurreko artikuluan aipatzen den onartu beharreko zenbatekotik honako prestazio hauek kenduko dira:

c) Autorización al Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia para poder consultar las bases de datos de otras Administraciones Públicas, Instituto Nacional de la Seguridad Social y Tesorería General de la Seguridad Social, para comprobar si la persona beneficiaria es titular de cualquier otra prestación de igual naturaleza y finalidad en otro régimen de protección social.

No obstante, las solicitudes también podrán cursarse en cualquiera de las formas previstas en el artículo 38 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2. En el supuesto de que la documentación se hubiera presentado incompleta o faltara alguno de los documentos señalados en el artículo anterior, la unidad administrativa competente de este Departamento, en cualquier momento podrá requerir a la persona solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, para que en el plazo de diez (10) días subsane la/s falta/s y acompañe los documentos preceptivos con apercibimiento de que si así no lo hiciera se le tendrá por desistido de su solicitud, previa resolución que deberá dictarse en los términos previsto por el artículo 42 de la citada Ley 30/1992.

3. Instruido el expediente reglamentario y en su caso, previo estudio, dictamen y propuesta del equipo técnico de la unidad administrativa competente del Departamento de Acción Social, el/la Diputado/a Foral de Acción Social dictará la oportuna Orden Foral, concediendo o denegando la prestación solicitada, y efectuándose la notificación en los términos señalados por la Ley 30/1992.

El plazo máximo para resolver será de 2 meses a contar desde la presentación de la solicitud. El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado la resolución, legítima a las personas interesadas para entender desestimada por silencio administrativo la solicitud de concesión de la prestación.

4. Si la persona solicitante no cumpliera con los requisitos exigidos para ser beneficiaria de la prestación, se notificará el preceptivo trámite de audiencia a la persona solicitante o, en su caso, a su representante legal o persona que ejerza la guarda de hecho, de conformidad con lo previsto en el artículo 84 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

5. Contra la Orden Foral resolutoria del presente procedimiento, que agota la vía administrativa, podrá interponerse ante el Diputado Foral de Acción Social el recurso potestativo de reposición regulado en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en el plazo de un mes (1) contado a partir del día siguiente a la fecha de notificación de la resolución.

6. Contra la Orden Foral resolutoria del presente procedimiento directamente o, en su caso, contra la Orden Foral resolutoria del recurso de reposición interpuesto contra aquélla, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Jurisdicción Contencioso-Administrativa en el plazo de dos (2) meses contados a partir del día siguiente a la fecha de notificación de la Orden Foral resolutoria del procedimiento o, en su caso, de la Orden Foral resolutoria del recurso de reposición interpuesto contra la misma, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Artículo 8.—Determinación de la cuantía de la prestación

El importe de la prestación para personas valoradas como gran dependientes, para el año 2007, se establece:

- Grado III, nivel 2 780 euros / mes.
- Grado III, nivel 1 585 euros / mes.

Artículo 9.—Deducciones

En los supuestos en que el la persona beneficiaria sea titular de cualquier otra prestación de igual naturaleza y finalidad establecida en otro régimen público de protección social, del importe a reconocer, a que se refiere el artículo anterior, se deducirán las siguientes prestaciones:

- Baliaezintasun handiaren osagarria, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 139.4 artikuluan araututakoa (ekainaren 20ko 1/1994 LED).
- % 75eko edo gehiagoko minusbaliotasuna daukan 18 urte-rik gorako seme-alabaren baten ardura dutenentzako dirukopuruaren osagarria, ekainaren 20ko 1/1994 LED-ren 182.bis.2c artikuluan jasotakoa.
- Baliaezinentzako kontribuziorik gabeko pentsioaren osagarria (beste norbaiten laguntza-beharrari dagokiona), ekainaren 20ko 1/1994 LED-ren 145.6 artikuluan jasotakoa.
- Beste pertsona baten laguntza jasotzeko sorospena, Minusbaliatuak Gizarteratzeko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen (LISMI) 12.2.c artikuluan jasotakoa.

10. artikulua.—*Atzera egitea*

Eskatzaileak edo, haren orde, beraren legezko ordezkariak nahiz egitatezko zaintza duen pertsonak eskabidean atzera egin ahal izango du, prozeduraren edozein unetan, beti ere ebazpena eman aurretik. Atzera egite hori bi eratarik gauzatu ahal da: idatziz edo legitimatutako pertsona bat Gizarte Ekintza Sailaren bulego-eta joanda. Legitimatutako pertsona agertzen bada atzera egiteko, funtzionarioak agertze-akta egingo du eta legitimatuak eta interesdunak sinatu beharko du.

11. artikulua.—*Onuradunen betebeharrak*

1. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Foru Sailari baimena ematea, fitxategi informatizatueta jasota dauden datu pertsonalak, ekonomikoak, osasun arlokoak eta sozialak estatistikak egiteko eta zientzia-ikerketarako eta Gizarte Ekintza Sailarenak diren funtzioetan erabili ditzan, datu pertsonalak babesteko legerian aurrez ikusitako eran.

2. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari baimena ematea, Ogasun eta Finantzen Foru Sailaren fitxategietan eta beste zerga-agentzia batzuei dagozkien fitxategietan beharrezkoak diren kontsultak egin ditzan, foru dekretu honen 11. artikuluko 5. zenbakian aipatzen diren benetako gastuen justifikazioaren egiaztasuna egiaztatzeko.

3. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari baimena ematea, beste herri administrazioen, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren datu-baseak kontsulta ditzan, egiaztatu ahal izateko ea onuradunak izaera eta xede bereko beste prestazioen bat daukan, gizarte-babesaren arloko bestelako araubideren batean.

4. Laguntza pertsonalerako prestazioa jasotzen dutenek jakinarazi egin beharko dute mendekotasuna aitortzeko aintzat hartutako egoeran egondako edozein aldaketa eta prestazio jasotzen jarraitzeari edo prestazioaren zenbatekoari eragin diezaiokeen edozein aldaketa. Aldaketa gertatzen den datatik aurrera hogeita hamar eguneko epea egongo da hori jakinarazteko.

Bereziki, Gizarte Segurantzaren arloan zaintzaile profesionalentzat ezarritako betebeharrak betetzearekin zerikusia duen edozein gorabehera jakinarazi beharko diote Gizarte Ekintza Sailari.

Betebehar hau ez betetzearen ondorioz behar ez den prestazioa jasotzen bada, interesdunak behar ez bezala jasotako dirukopuruak itzuli egin beharko ditu, egoeraren aldaketa gertatu eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunetik, aldaketa noiz hauteman den kontuan hartu gabe. Ez da horrela izango itzulketa eskatzeko egintza preskribatu egin denean, hau da, lau urteko epea igaro ondoren.

5. Prestazioa jasotzen dutenek, kenkariak egin ondoren sortzen den zenbatekoa, oso-osorik, laguntzaile pertsonala kontratatzeak eragindako gastuak ordaintzeko erabili beharko dute. Horregatik, urteko aitorpena aurkeztu beharko dute, prestaziorako esku-bidea sorraziti zuten baldintzak bere horretan dirautela adieraziz. Horretarako beharrezkoak diren agiriak aurkeztu beharko dituzte. Aurreko urtean egindako benetako gastuaren justifikazioa ere aurkeztu beharko dute. Gastu hau ezin da, inola ere, jasotako prestazioaren zenbatekoa baino txikiagoa izan.

- El complemento de gran invalidez, regulado en el artículo 139.4, de la Ley General de la Seguridad Social, R.D.L. 1/1994, de 20 de junio.
- El complemento de la asignación económica por hijo a cargo mayor de 18 años con un grado de minusvalía igual o superior al 75%, previsto en el art. 182 bis.2c, del R.D.L. 1/1994, de 20 de junio.
- El complemento por necesidad de tercera persona de la pensión de invalidez no contributiva, previsto en el art. 145.6, del R.D.L. 1/1994, de 20 de junio.
- El subsidio por ayuda de tercera persona, previsto en el art. 12.2.c, de la Ley 13/1982, de 78 de abril, de Integración Social de los Minusválidos, LISMI.

Artículo 10.—*Desistimiento*

En cualquier momento del procedimiento y antes de dictarse resolución, la persona solicitante o, en su caso, su representante legal o persona que ejerza la guarda de hecho, podrá desistir de su solicitud. Dicho desistimiento se formulará por escrito o mediante comparecencia de la persona legitimada en las oficinas del Departamento de Acción Social. En este último supuesto, el/la funcionario/a correspondiente cumplimentará la oportuna acta de comparecencia que deberá ser firmada por dicha persona y por la persona interesada.

Artículo 11.—*Obligaciones de las personas beneficiarias*

1. Autorizar al Departamento de Acción Social de la Diputación de Bizkaia para que los datos de carácter personal, económicos, sanitarios y sociales que integren los ficheros informatizados, puedan ser utilizados con fines de producción de estadísticas e investigación científica y para las funciones propias del Departamento de Acción Social, en los términos previstos por la legislación de protección de datos de carácter personal.

2. Autorizar al Departamento de Acción social de la Diputación Foral de Bizkaia para realizar todas las consultas que fueran necesarias en los ficheros del Departamento Foral de Hacienda y Finanzas y en los correspondientes a otras agencias tributarias al objeto de comprobar la veracidad de la justificación de los gastos reales a los que se refiere el número 5 del artículo 11 del presente Decreto Foral.

3. Autorizar al Departamento de Acción social de la Diputación Foral de Bizkaia para realizar todas las consultas que fueran necesarias en los ficheros de otras administraciones públicas, Instituto Nacional de la Seguridad Social y Tesorería General de la Seguridad Social, al objeto de comprobar si la persona beneficiaria es titular de cualquier otra prestación de igual naturaleza y finalidad en otro régimen de protección social.

4. Los perceptores de la prestación de asistencia personal, vendrán obligados a comunicar, en el plazo máximo de treinta días desde la fecha en que se produzca, cualquier variación de la situación tenida en cuenta para el reconocimiento de la dependencia y cuantas puedan tener incidencia en la conservación o en la cuantía de esta prestación.

En especial deberán comunicar al Departamento de Acción Social cualquier incidencia relacionada con el cumplimiento de las obligaciones establecidas en materia de la Seguridad Social para los/las cuidadores/as profesionales.

Cuando del incumplimiento de esta obligación se derive una percepción indebida de esta prestación, la persona interesada, deberá reintegrar las cantidades indebidamente percibidas, desde el día primero del mes siguiente a aquel en que hubiera variado la situación, cualquiera que sea el momento en que se detecte la variación, salvo que la acción para solicitar la devolución hubiera prescrito, por transcurso del plazo de cuatro años.

5. Los perceptores de la prestación, estarán obligados a destinar íntegramente el importe resultante, una vez hechas las deducciones, a la cobertura de los gastos derivados de la contratación de un asistente personal. Por ello, deberán presentar una declaración anual de que las condiciones que originaron el derecho a la prestación se mantienen, aportando los documentos necesarios y la justificación del gasto real realizado en el año inmediatamente anterior, que nunca podrá ser inferior a la cuantía de la prestación recibida.

Aitorpen eta justifikazio hauek urte bakoitzeko lehenengo hiru hilekoan aurkeztu beharko dira. Betebehar hau ez bada betetzen, Bizkaiko Foru Aldundiak eskakizuna egin ondoren, prestaziorako eskubidea iraungitzeko eta bidegabe jasotako kopuruak itzultzeko prozedura hasiko da.

6. Edonola ere, laguntza hau eskatzen dutenek eta jasotzen dutenek Gizarte Ekintza Sailak eskatuko dizkien informazioa eta agiriak aurkeztu beharko dituzte, laguntza kudeatzeko beharrezkoak direlako.

12. artikulua.—*Prestaziorako eskubidearen aldaketa*

Prestazioak onuradunaren egoera pertsonalaren arabera aldatu ahal izango dira, baita prestazioa onartzeko ezarritako betekizunetan edozein aldaketa gertatzen denean ere.

13. artikulua.—*Urteko berrikusketak*

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak urtero berrikusiko du ea onuradunak prestaziorako eskubidea sorrarazi zuten baldintzak betetzen dituen ala ez. Berrikuste honen arabera, prestazioa behar ez bezala jaso dela ikusten bada, interesdunak behar ez bezala jasotako kopuruak itzuli beharko ditu.

14. artikulua.—*Prestaziorako eskubidearen iraungipena*

Laguntza pertsonalerako prestaziorako eskubidea onuraduna hurrengo inguruabar hauetatik edozeinetan dagoenean iraungiko da:

- Mendekotasuna aitortzeko eskatutako betekizunetako bat galtzen duenean.
- Onuradunak prestazioari berariaz uko egiten dionean.
- Laguntzeko Banakako Plana aldatu eta prestazio honen egokitasuna zehazten ez denean.
- Arautegi honetan eta ezarri beharreko gainerakoan araututako betebeharrak betetzen ez dituztenean.
- Onuraduna hiltzen denean.

a), c) eta d) paragrafoetan jasotako kasuetan, onuradunaren eskubidea iraungi aurretik, aginduzkoa den entzunaldiaren izapidea jakinarazi beharko da. Jakinarazpen horretan eskubidea iraungitzeko arrazoiak eta alegazioak jartzeko epea adierazi beharko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 84. artikuluan ezarritakoaren arabera.

15. artikulua.—*Prestazioaren ondorio ekonomikoaren iraungitzea*

Dekretu honen 14. artikuluan aurrez ikusitakoaren arabera, iraungitzaletako prestazioen ondorio ekonomikoak iraungipena eragin duen arrazoiak gertatu eta hurrengo hilabetean iraungiko dira.

16. artikulua.—*Ordainketa*

Prestazioa hileroko ordainduko da eta 12 hileko izango dira urtean. Prestazio ekonomikoa onartzeak eragindako ondorio ekonomikoak atzerako eragina izango dute: laguntza pertsonalerako zerbitzua (dekretu honetan eskatutako betekizunen arabera jasotakoa) jaso den hilabetetik aurrera eta inoiz ez mendekotasunaren balorazioa eskatu den hilabetea baino lehenagotik. Aldez aurretik, onuradunak egiaztatu egin beharko du zaintzaile profesionalak Gizarte Seguratasunaren arloan ezarritako betebehar guztiak betetzen dituela.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorrean ezarritakoaren arabera, foru dekretu honetan oinarrituta 2007an zehar ematen diren prestazioak aurrekontuan honela izendatutako partidatik ordainduko dira: Saila (03), Atala (0304), Programa (310305), ekonomikoa (46100).

Bilbon, 2007ko ekainaren 19an.

Gizarte Ekintzako foru diputatua,
JUAN MARIA ABURTO RIKE

Ahaldun Nagusia,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

Esta declaración y justificación deberá realizarse dentro del primer trimestre de cada año. Incumplida dicha obligación y previo requerimiento de la Diputación Foral de Bizkaia, se iniciará el procedimiento de extinción del derecho a la prestación y devolución de las cantidades indebidamente percibidas.

6. En cualquier caso, las personas solicitantes y perceptoras de esta ayuda vendrán obligada a facilitar la información y presentar la documentación que les sea requerida por el Departamento de Acción Social que resulte pertinente para la gestión de la ayuda.

Artículo 12.—*Modificación del derecho a la prestación*

Las prestaciones podrán ser modificadas en función de la situación personal de la persona beneficiaria, cuando se produzca una variación de cualquiera de los requisitos establecidos para su reconocimiento.

Artículo 13.—*Revisión anual*

El Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, anualmente revisará las condiciones de la persona beneficiaria que originaron el derecho a la prestación se mantienen. Cuando de esta revisión se derive una percepción indebida de esta prestación, el interesado, deberá reintegrar las cantidades indebidamente percibidas.

Artículo 14.—*Extinción del derecho a la prestación*

El derecho a la prestación de asistencia personal, se extinguirá cuando en el la persona beneficiaria concorra alguna de las siguientes circunstancias:

- Pérdida de alguno de los requisitos exigidos para el reconocimiento de la dependencia.
- La renuncia expresa por la persona beneficiaria.
- Modificación del Plan Individual de Atención, por el que se deje de determinar la adecuación de esta prestación.
- Incumplimiento de las obligaciones reguladas en la presente normativa y demás normativa aplicable.
- Fallecimiento de la persona beneficiaria.

En los supuestos contenidos en los párrafos a), c) y d), antes de proceder a la extinción del derecho de la persona beneficiaria deberá notificarse el preceptivo trámite de audiencia con indicación de los motivos y plazo para alegaciones en la forma prevista en el artículo 84 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 15.—*Extinción de los efectos económicos de la prestación*

Los efectos económicos de las prestaciones declaradas extinguidas, a tenor de lo previsto en el artículo 14 de este Decreto, se entenderán desde el mes siguiente en que se haya producido la causa determinante de su extinción.

Artículo 16.—*Pago*

El pago será mensual abonándose 12 mensualidades, y los efectos económicos del reconocimiento de la prestación se retrotraerán al mes en el que se hubiese recibido el servicio de asistencia personal con los requisitos exigidos en el presente Decreto y nunca con efectos anteriores al mes en el que se haya solicitado la valoración de la dependencia. Previamente la persona beneficiaria deberá haber acreditado que el/la cuidador/ra profesional cumple con todas las obligaciones establecidas en materia de Seguridad Social.

DISPOSICION ADICIONAL

De acuerdo a lo dispuesto en la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, las prestaciones que se concedan durante el año 2007 al amparo del presente Decreto Foral, se harán efectivas con cargo a la partida presupuestaria consignada como: Departamento (03), Sección (0304), Programa (310305), económico (46100).

Dado en Bilbao, el 19 de junio de 2007.

El diputado foral de Acción Social,
JUAN MARIA ABURTO RIKE

El Diputado General,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
**Diputación
Foral de Bizkaia**

Gizarte
Ekintza Saila
Departamento
de Acción Social

I. Eranskina / Anexo I

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikorako eskabidea Solicitud para la prestación económica de asistencia personal

1. Eskatzailearen datuak Datos de la persona solicitante

1. deitura / Apellido 1		2. deitura / Apellido 2	
Izena / Nombre		NAN / D.N.I.	
Jaioteguna / Fecha de nacimiento		Sexua / Sexo	Egoera zibila / Estado civil
Ohiko helbidea / Dirección habitual			Zk./ N.º Atea / Puerta
Udalerría / Municipio	PK / C.P.	Probintzia / Provincia	
Telefonoak / Teléfonos			
Hezkuntza edo lan jarduera / Actividad educativa o laboral desempeñada			

2. Jakinarazpenetarako egoitza Domicilio a efectos de notificaciones

Helbidea / Dirección		Zk. / N.º	Solairua / Piso	Atea / Puerta
Udalerría / Municipio	PK / C.P.	Probintzia / Provincia		
Telefonoak / Teléfonos				

3. Egoera ekonomikoa, kenkarien ondorioetarako Situación económica a efectos de deducciones

Baliaezintasun handikoentzako pentsioa Pensión de gran invalidez	Bai / Sí <input type="checkbox"/>	Ez / No <input type="checkbox"/>
Baliaezinentzako kontribuziorik gabeko pentsio osagarriduna (osagarria: beste norbaiten laguntza beharra) Pensión no contributiva de invalidez con complemento por necesidad de otra persona	Bai / Sí <input type="checkbox"/>	Ez / No <input type="checkbox"/>
Beste pertsona baten laguntza jasotzeko sorospena (Elbarriak Gizarteratzeko Legearen arabera) Subsidio por ayuda de tercera persona de la LISMI	Bai / Sí <input type="checkbox"/>	Ez / No <input type="checkbox"/>
Seme-alaba baten ardura dutenentzako diru-kopuru osagarriduna (osagarria: beste norbaiten laguntza beharra) Asignación económica por hijo a cargo con complemento por necesidad de otra persona	Bai / Sí <input type="checkbox"/>	Ez / No <input type="checkbox"/>

X batekin adierazi / Marcar con una X

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, JAKITERA EMATEN DIZUGU eskabide honetan nahiz eskatutakoa ebazteko prozeduran eta mendekotasun egoeran daudentzako prestazio eta zerbitzuak eskuratzeko prozeduratan jasotako datuak halako datuak tratatzeko izaera pertsonaleko fitxategi informatiko batean sartuko direla. Fitxategi horren arduraduna Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Gizarteratzearen eta Adinekoen Zuzendari Nagusia da, eta zuk zure datu pertsonaletara sartzeko, horiek aldatzeko, kentzeko edota horien aurka egiteko eskubidea izango duzu, hurrengo helbide honetara komunikazioa bidaliz: Ugaskoko bidea k/ko 3. 48014 - Bilbo.

BAIMENA EMATEN DIOT Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari fitxategi informatizatueta jasota dauden datu pertsonalak, ekonomikoak, osasun arlokoak eta sozialak estatistikak egiteko eta zientzia-ikerketarako eta Gizarte Ekintza Sailarenak diren funtzioetan erabil ditzan, datu pertsonalak babesteko legerian aurrez ikusitako eran.

BAIMENA EMATEN DIOT Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari, beste herri administrazioen, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren datu-baseak kontsulta ditzan, egiaztatu ahal izateko ea onuradunak izaera eta xede bereko beste prestazioen bat daukan, gizarte-babesaren arloko bestelako araubideren batean.

BAIMENA EMATEN DIOT Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari prozedura hau behar bezala ebazteko fitxategi publikoetan beharrezkoak diren kontsultak egin ditzan.

(Hori guztia bat dator Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoarekin).

Nire erantzukizunpean honako hau adierazten dut:

- Honako eskabidean jarritako datuak egiazkoak direla.
- Badakidala Gizarte Ekintza Sailari adierazi behar diodala aurrerantzean gertatzen den edozein aldaketa.
- Laguntzaile pertsonala ez dela nire ezkontidea ezta nire ahaidea ere (odolekoa, ezkontzakoa edo adopzio bidezkoa, hirugarren ahaidetasun-mailaraino).

Según lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, LE INFORMAMOS que los datos recogidos en esta solicitud, así como los que se deriven del procedimiento para la resolución de lo solicitado y de los procedimientos para acceder a los servicios y prestaciones de atención a la dependencia se integrarán en un fichero informatizado de carácter personal para el tratamiento de dichos datos, cuyo responsable es el Director General de Inserción Social y Personas Mayores del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, teniendo usted el derecho al acceso, rectificación, cancelación y oposición de sus datos personales dirigiendo una comunicación a la siguiente dirección: c/ Camino de Ugasko n.º 3, 48014 Bilbao.

AUTORIZO al Departamento de Acción Social de la Diputación de Bizkaia para que los datos de carácter personal, económicos, sanitarios y sociales que integren los ficheros informatizados, puedan ser utilizados con fines de producción de estadísticas e investigación científica y para las funciones propias del Departamento de Acción Social, en los términos previstos por la legislación de protección de datos de carácter personal.

AUTORIZO al Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia para poder consultar las bases de datos de otras Administraciones Públicas, Instituto Nacional de la Seguridad Social y Tesorería General de la Seguridad Social, para comprobar si la persona beneficiaria es titular de cualquier otra prestación de igual naturaleza y finalidad en otro régimen de protección social.

AUTORIZO al Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia para realizar cuantas consultas a ficheros públicos sean necesarias para la correcta Resolución del presente procedimiento.

(Todo ello de conformidad con lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal).

Declaro bajo mi responsabilidad:

- Que son ciertos los datos consignados en la presente solicitud.
- Que quedo enterado/a de la obligación de comunicar al Departamento de Acción Social cualquier variación que pudiera producirse en lo sucesivo.
- Que el/la asistente personal no es mi cónyuge ni pariente por consanguinidad, afinidad o adopción, hasta el tercer grado de parentesco.

(tokia / lugar)

(urtea / año)

(hilabetea / mes)

(eguna / día)

n, 200 (e)ko

k

Eskatzailearen sinadura / NAN
Firma de la persona solicitante / DNI

Sinatu ezin badu, horren zergatia
Causa por la que no puede firmar

Eskabideari erantsi behar zaizkion agirien zerrenda:

- a) NAN/AIZ/Pasaportearen fotokopia, edo, halakorik ez badu, eskatzailearen nortasuna eta legezko egoitza egiaztatzen duen beste edozein agiriren fotokopia, mendekotasunaren balorazioa Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo egin denean.
- b) Mendekotasunaren balorazioaren ebazpena, mendekotasunaren balorazioa Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo egin denean
- c) Eskatzailearen errolda-ziurtagiria.
- d) Hezkuntza edo lan munduan egindako jarduerak egiaztatzen dituen ziurtagiria.
- e) Laguntzaile pertsonalarekin sinatutako kontratua eta Gizarte Segurantzaren arloan zaintzaile profesionalentzat ezarritako betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duen ziurtagiria.
- f) Laguntzaile pertsonalaren NAN / AIZ / Pasaportearen fotokopia, edo, halakorik ez badu, bere nortasuna eta legezko egoitza egiaztatzen duen beste edozein agiriren fotokopia.
- g) Bankuko kontuaren identifikazio-fitxa.
(II. eranskina)

Relación de documentos que han de adjuntarse a la solicitud:

- a) Fotocopia del D.N.I./NIE/Pasaporte, o, en su defecto, de cualquier otro documento acreditativo de la identidad y residencia legal de la persona solicitante, en el caso de que la valoración de la dependencia se haya efectuado fuera del Territorio Histórico de Bizkaia.
- b) Resolución de la valoración de la dependencia, en el caso de que la valoración de la dependencia se haya efectuado fuera del Territorio Histórico de Bizkaia.
- c) Certificado de empadronamiento de la persona solicitante.
- d) Certificado acreditativo de las actividades desarrolladas en el ámbito educativo o laboral.
- e) Contrato suscrito con el/la asistente/a personal y certificado de cumplir con las obligaciones establecidas en materia de seguridad Social para los/las cuidadores/as profesionales.
- f) Fotocopia del D.N.I. / NIE / Pasaporte, o, en su defecto, de cualquier otro documento acreditativo de la identidad y residencia legal del asistente personal.
- g) Ficha identificativa de la cuenta bancaria.
(Anexo II)



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
**Diputación
Foral de Bizkaia**

Gizarte
Ekintza Saila
Departamento
de Acción Social

II. Eranskina / Anexo II

Mendekotasun egoeretarako prestazio ekonomikoak Prestaciones económicas de la dependencia

Onuradunak edo bere legezko ordezkariak bete beharreko datuak
Datos a ser rellenados por la persona beneficiaria o por su representante legal

Izen-deiturak / Nombre y apellidos			
Helbidea / Domicilio			
Herria / Población			PK / C. P.
Telefona / Teléfono		NAN / D.N.I.	
(tokia / lugar)	(urtea / año)	(hilabetea / mes)	(eguna / día)
n, 200 (e)ko		k	
Jasotzailearen sinadura / Firma del perceptor			

Banku-erakundeak bete beharreko datuak
Datos a ser rellenados por la entidad bancaria

Goian aipatutako pertsona honako kontu honen titularra dela ziurtatzen dugu Certificamos que la persona arriba referenciada es titular de la siguiente cuenta			
Banku-erakundea / Entidad bancaria			
Bulegoa / Sucursal	Kontrol-digituaren zk. / N.º dígito control	Kontu zenbakia / N.º de cuenta	
Herria / Población			PK / C. P.
(tokia / lugar)	(urtea / año)	(hilabetea / mes)	(eguna / día)
n, 200 (e)ko		k	
Banku-erakundearen sinadura eta zigilua / Firma y sello de la entidad bancaria			

Gizarte Ekintza Sailak bete beharreko datuak
Datos a ser rellenados por el Departamento de Acción Social

Prestazio mota / Tipo de prestación			
Espediente zk. / N.º de expediente			
(tokia / lugar)	(urtea / año)	(hilabetea / mes)	(eguna / día)
n, 200 (e)ko		k	